

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Santurtziko Udala**

Hautapen-probetarako deialdiaren oinarrietako akatsen zuzenketa tokiko administrazioaren funtzionarioen eskala eta kategorietan jarduteko, 2017ko ekitaldiaren enplegu Publikorako Eskaintzari dagokiona: Gizarte Langilea.

Gobernu Batzordeak 2020ko azaroaren 3an hartutako erabakia betez, zuzendu egingo dira Santurtziko Udalean gizarte-langile jarduteko lanpostu bat (1) betetzeko, barne-promozioaren bitartez, hautapen-proben oinarrietan atzemandako akats materialak. Oinarriok Gobernu Batzordeak onetsi zituen 2020ko uztailaren 21ean hartutako erabakiaren bidez (2020ko abuztuaren 11ko eta 2020ko abuztuaren 31ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean).

Ondorio horietarako, aipatutako deialdiaren oinarri orokorren hirugarren atalean.

— *Honako hau dioen tokian:*

«3. Eskaerak aurkezteko epea hogeitaz egun naturalekoa izango da deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean zenbatzen hasita.»

— *Honela behar luke:*

«3. Eskaerak aurkezteko epea hogeitaz lanegunekoa izango da deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean zenbatzen hasita.»

Horrela bada, deialdiaren oinarri eguneratuak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Eta horrela jakinarazten da dagozkion ondorioetarako, ohartaraziz aipatu erabakiaren aurka, administrazio-bidean behin betikoa bera, Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa jartzeko aukera izango duzu(e)la bi hileko epean, honako jakinarazpena jaso eta biharamunean zenbatzen hasita, Euskal Herriko Auzitegi Nagusitik berari dagokion Administrazio Auzietako epaitegian, Administrazioarekiko Auzi eskumena arautzen duen uztailaren 13ko 1998/29 Legearen 8 eta 46. artikuluetan ezarritakoari jarraituz eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erakidearen urriaren 1eko 2015/39 Legearen 114.c) artikuluekin bat etorritik.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoan adierazitako Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoaren aurretik, aukeran duzu/duzue jakinarazi den ebazpenaren aurka Berraztertze Errekurtsoa jartzea, berau eman zuen organo berean hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunean zenbatzen hasita.

Hori guztiori urriaren 1eko Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015/39 Legearen 123,124 eta lege horrekin bat datozen artikuluetan ezarritakoari jarraituz eta zure/zuen eskubideak egoki babesteko bidezkotzat jotzen dituzun egintzak zein errekurtsuak aurkezteko aukera baztertu gabe.

Horrela argitaratzen da jende orok jakin dezan.

Santurtzin, 2020ko azaroaren 9an.—Behin-Behineko Alkate-Udalburua, Joseba Ramos Arias

**TOKI ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOEN ESKALA ETA AZPIESKALETARA SARTZEKO HAUTAKETA-PROBEN DEIALDIETARAKO OINARRI OROKORRAK****2017KO LAN ESKAINTZA PUBLIKOA
DEIALDIAREN OINARRIAK****Lehenengoa. — Oinarrien helburua**

1. Oinarri hauen helburua honako hau da: Eranskinetan azaldutako Santurtziko Udaleko funtzionarioen eskala eta azpi-eskaletara sartzeko sistemak, betekizunak, irizpideak, organoak eta prozedurak arautu eta zehaztea, 2017ko Lan-eskaintza Publikoa betez.

2. Deialdiko lanpostuetatik, Eranskinetan azaldutako kopuruak gordeko dira desgaitasuna duten pertsonen txandaren eta barne-igoerako txandaren bitartez betetzeko. Deialdi horietako lanposturik eman gabe geratuko balitz, probak gainditzeko eskatzen zen gutxieneko puntu-kopurua eskuratu ez delako, sarrera libreko txandan eskaintakoe-kin batuko da, sartzeko deialdietatik independente egin diren deialdien kasuan izan ezik.

Bigarrena. — Hautagaiek bete beharreko baldintzak

1. Hautaketa-probetan onartua izateko eta parte hartzeko, izangaiek hurrengo baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Espainiako nazionalitatea izatea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 57. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.
- b) Hamasei urte beteta izatea, eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehienezko adina gainditu gabe izatea.
- c) Bete nahi den plazari dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzeko behar den gaitasun funtzionala eta psikofisikoa edukitzea eta beren elbarritasun-maila lanpostuaren betebeharrak eta eginkizunak betetzeko oztopo ez dela egiaztatzea.
- d) Diziiplina-espedientearen bidez, inongo herri-administrazioetako zerbitzutik bereizita ez egotea edo eginkizun publikoak egiteko ezgaiturik ez egotea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 56,1,d) artikulua terminoetan.
- e) Hautaketa-prozesu bakoitzeko eskatzen diren gainerako baldintza guztiak, Eranskinetan ezarritakoari jarraituz.

2. Hautagaiek oinarri hauetan ezarritako baldintzak izan beharko ditu eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, eta erabili ahal izango ditu hautaketa-prozesua dirauen bitartean eta karrerako funtzionario gisa kontratatu arte edo lanpostua jabetzan hartu arte, Eranskinetan aurreikusitako salbuespenak salbu.

Hirugarrena. — Eskabideak

1. Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak doan banatuko dira Santurtziko Udalaren Erregistro Nagusian. Interneteko aipatutako gunean dagoen eskabide orokorretarako eredua ere erabili ahal izango da. Edonola ere, hautagaiek hurrengo datu hauek eman beharko dituzte:

- Izen-abizenak.
- Jakinarazpenetarako nahiago den bitartekoa, helbidea edo lekua.
- Harremanetarako telefono-zenbakia (ahal izanez gero, mugikorra).
- Lortu nahi den lanpostua. Sarrera mugatua duten deialdietan parte hartzeko eskatzekotan, zein txanda dagokion adieraziko da: desgaitasuna duten pertsonak, barne-igoera edo nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duen lanpostua.

2. Eskakerak Alkate udalburuari zuzenduta egongo dira, eta Santurtziko udaletxeko Erregistro Nagusian aurkeztuko dira, edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 2015/39 Legearen 16.4. artikuluan zehazten diren lekue-
tan. Eskakerak posta-zerbitzuaren bidez helaraztekotan, itxi gabeko gutun-azalean bidali beharko dira, aipatu zerbitzuak zigilua eta data ezarri diezazkion eskariok erregistratu aurretik.



Horrez gain, Internet bidez aurkeztu ahal izango dira www.santurtzi.net helbidean (izapideak-instantzia orokorrerako eskabidea).

3. Eskabideak aurkezteko epea hogei egun lanegunekoa izango da, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

4. Hautagaiak, eskabidearekin batera, Nortasun Agiri Nazionala baino ez dute erantsi behar izango, eta digitalizatuko da administrazio espediente elektronikoari eransteko. Bigarren oinarrian adierazitako baldintzen egiaztagiria izendatzean aurkeztu beharko dira, bederatzigarren atalean ezartzen denari jarraituz.

5. Merezimenduak aurkeztu, egiaztatu eta baloratzeko, Eranskinetako 3.2.2 atalean ezarritakoa jarraituko da.

6. Edonola ere, Udalak Euskararen ezagutzari buruzko egiaztagiri originala zuzenean eskatuko du ariketa egiten den egunean, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikaren sailburuordetzaren organoa den Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateria-tuan kontsultatuz.

7. Administrazioak hartutako neurriei kalterik egin gabe, desgaitasunak dituzten pertsonak hori agerrarazi ahal izango dute, eta kasuan kasu hautaketa-probak egiteko beharrezkotzat jotzen dituzten egokitzapenak eta denborak eta bitartekoak eskatu ahal izango dituzte. Horretarako, onartzeko eskabidearekin batera idazkia aurkeztu beharko dute.

8. Eskaera aurkeztean hautagaiak baimen ematen du eskaera-orrian jasotako datuak (izen-abizenak eta Nortasun Agiriaren zenbakia) lagatzeko IVApek edo beste erakunde eskumendun batek Euskara edo beste hizkuntza batean duen ezagutza-maila egiaztatu dezan.

Datuak lagatzeko baimena eman ezean, betiere aurreko paragrafoan adierazitako eduki eta helburuetarako, hautagaiak beren-beregi adierazi beharko du eskaera-orrian, eta Euskara edo beste hizkuntza batean duen maila egiaztatu beharko du garaiz eta modu egokian.

Era berean, eskaera orria aurkeztean hautagaiak baimen ematen du bertan jasotako datuak lagatzeko, bai eta orokorrean epaimahaiak berak, edo honek agindutako erakunde edo enpresak, probak prestatu eta egikaritu ditzan beharrezkoak diren datuak ere.

Publizitatearen printzipioak arautzen ditu hautaketa-prozesuak, eta beraz, ez da eskabidea onartuko baldin eta hautagaiak ez badu bere datuak aurreko paragrafoan adierazitako helburuetarako lagatzeko baimenik ematen.

Hautaketa-prozesuetatik sortzen diren Lan Poltsak egite aldera, eskaera-orria aurkeztean hautagaiak baimen ematen du bere datuak (izen-abizenak, prestakuntza eta harremanetarako bidea) beste herri-administrazio batzuei lagatzeko. Horrela, enplegu-eskaintzak jaso ahal izango ditu.

Hautagaiak datuok lagatzeko baimenik eman nahi ez badu (aurreko paragrafoan adierazitako eduki eta xedeetarako), beren-beregi adierazi beharko du eskaera-orrian.

Hautagaiak emandako datuak «langile-hautaketa» izeneko tratamenduan sartuko dira, zeinen organo erantzulea Santurtziko Udala (Barne Araubide eta Giza baliabide arola) izango den. Tratamenduaren xedea Santurtziko Udaleko langileak hautatzea izango da. Tratamenduak ezinbestean behar du onarpena, bai eta legezko obligazioa betetzea ere.

Interesatuak datuak ikusi, zuzendu, ezereztatu, mugatu, aurka egin eta transferitzeko eskubideak erabili ahal izango ditu oinarri hauetako 4.2. atalean adierazitako bideen bitartez.

Interesatuak datuekin egingo den tratamenduari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, hurrengo webgunean sartu beharko da: www.santurtzi.eus

Laugarrena. — Publizitatea

1. Hurrengo hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira: onartutakoen eta ez onartutakoen zerrondak, epaimahaiko kideen izendapena, epaimahaia osatuko den zein lehen ariketa burutuko den tokia, eguna eta ordua.



2. Bigarren ariketa eta hurrengoak egiteko iragarkia, hala badagokio, hautaketa-epaimahaiak argitaratuko du Udalbatzaren iragarki-oholean, hasteko adierazitako ordua baino hirurogeita hamabi ordu lehenago, gutxienez.

Era berean, epaimahaiak bai gainditutako ariketen emaitza eta kalifikazioak, eta bai merituen balorazioa udalaren oharren taulan argitaratuko ditu.

3. Bizkaiko Aldizkari ofizialean eta iragarki taulan argitaratutako informazioa esku-ragarri egongo da Santurtziko Udalaren webgune ofizialean informatzeko xede soilez.

Bosgarrena. — Hautagaiak onartzea

1. Eskaerak aurkezteko epea behin bukatuta, Alkatearen Dekretu bidez onartuko da prozesuan onartutako eta baztertutako hautagaien zerrenda. Hautagaiak ez onartzeko arrazoiak zein izan diren adieraziko dira, eta oinarrizko akats edo hutsuneak zuzenduko, horrela behar denean. Erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean azalduko da.

2. Akatsak edo hutsak zuzentzeko eskatzeko epea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 2015/39 Legearen 16.4. artikuluan adierazitako tokietan azalduta, hamar lanegunekoa izango da, aurreko erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean zenbatzen hasita. Gero, Alkateak berriro emango du ebazpena onartu eta baztertutako kideen behin betiko zerrenda onartuz eta ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

3. Besteak beste, ezin izango da konpondu eskabidea epez kanpo aurkezten bada, ez eta merituak egiaztatzeak agiriak akatsez edo hutsez edo epez kanpo aurkezten bada ere.

4. Hautagaiak onartzeak ez du esan nahi prozesua tramitatu bitartean baztertuta ez geratzeko eskubidea dagoenik, proba guztiak egin nahiz ez, aurkeztutako datuak edo agiriak egiaztatu ondoren ikusten bada onartzeko eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatutako betekizunak betetzen ez direla. Kasu horretan, epaimahaiak baztertzeko proposamen egokia egingo du, interesdunari entzunaldia eskaini eta gero alkate-udalburuak ebazpen egokia eman dezan.

Seigarrena. — Hautaketa-prozesuaren garapena

1. Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo da, eta egitera bertaratzen ez diren guztiak baztertuta geratuko dira.

2. Nortasun-agiria eraman beharko da ariketa guztietara, edo bestela, epaimahaiaren iritziz nortasuna behar bezala egiaztatzen duen beste edozein agiri. Edozein unetan, epaimahaiak nortasuna egiaztatzeak eskatu ahal izango die hautagaiei.

3. Idatziz egin behar diren ariketak zuzentzean hautagaiak nor diren jakiterik ez dagoela bermatzeko neurri egokiak hartuko ditu epaimahaiak (horretarako, inprimaki normalizatuak erabiliko dira), jendaurreko saioan irakurtzea erabakitzen denean izan ezik. Egilea nor den jakiteko aukera ematen duten marka edo zeinuak dauzkaten ariketen egileak baztertuko ditu epaimahaiak.

4. Proba egiteko ordena ezarri behar denean, alfabetikoki hasiko da, epaimahaiak proba egin aurretik egingo duen zozketari jarraituz.

Zazpigarrena. — Epaimahaia

1. Hautaketa-epaimahaiaren kideak Alkatearen Dekretuaren bidez izendatuko dira, bai eta epaimahaia osatzeko zein lehen ariketa burutzeko tokia, eguna eta ordua ere.

2. Epaimahaia hurrengo arau hauen arabera osatuko da:

a) Epaimahaia kide anitzekoa izango da, eta hauek osatuko dute: epaimahaiburu batek (1), lau (4) epaimahaikidek eta idazkari batek (1), zeinek berba egiteko eskubidea izango duen, baina ez bozketetan parte hartzekoa.

b) Epaimahaia kideen inpartzialtasuna eta profesionaltasuna aintzat hartuta izendatuko da, eta bertan gizon-emakumeen arteko parekotasuna gordeko da. Boto eskubidea duten kideen erdiak, gutxienez, izan beharko dute sartzeko eskatzen



den ezagutza-arloari dagokion titulazioa, eta kide guztiek maila akademiko berbera edo altuagoa.

- c) Epaimahaikideek modu indibidualean hartuko dute parte. Ezin izango dute, beraz, beste baten ordezkari edo kontura jardun.
- d) Ezin izango dute epaimahaiaren jardun hautaketa edo izendapen politikodun kideek, bitarteko funtzionarioek eta behin-behineko langileek.

3. Epaimahaiak bere lanetan aholkulariak sartzea erabaki ahal izango du, hautaketa-prozesuak dituen proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulariek, hala ere, euren espezialitate teknikoetan baino ez dute jardungo.

4. Epaimahaiaren jarduna baliozkoa izan dadin, presidente eta idazkaria edo horien ordezkariak eta gutxienez bokalaren erdia elkartu beharko dira. Akordioak hartuko dira bertan diren epaimahaiko gehiengo kideen aldeko botoekin, eta berdinketarik gertatuz gero, Presidentearen kalitatezko botoak desegingo du berdinketa. Honako Oinarri hauek adierazten ez den guztian Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 2015/40 Legearen II. Kapituluaren, 3. atalaren, 1go azpiatalean zehazten dena beteko du epaimahaiak.

5. Administrazio-prozedura erkidea arautzen duen araudian aurreikusitako inguruabar bat gertatzen denean, epaimahaiko kide direnak abstenitu egingo dira, eta izendatzeko eskumena duen organoari hala jakinaraziko diote; halaber, kasu horretan hautagaiek ezespena sustatu ahal izango dute. Halaber, berariaz debekatuta dago deialdi egokia argitaratu baino lehenagoko bost urteetan hautagaiak prestatzeko lanak egin dituztenak kide, laguntzaile edo aholkulariak epaimahaikide izendatzea eta hala jardutea; kasu horretan abstentzio kasuetan bezala jardun beharko da.

6. Epaimahai kalifikatzailea oinarri hauen interpretazioan eta ezarpenean sor litezkeen zalantza eta gai guztiak argitzeko gaitasuna duen bakarra izango da, bai eta hautaketa-prozesuak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko ere, ezar daitekeen araudian edo Oinarrietan zehaztuta ez dauden egoera guztietan.

7. Interesdunek epaimahaiak hartzen dituen erabakiak aurkaratu ahal izango dituzte administrazio prozedura erkidearen araudian zehaztutako moduan eta epeetan.

Zortzigarrena. — Prozesuaren emaitza

1. Hautaketa-prozesuko fase puntuagarrietan lortutako puntuen baturak erabakiko du sailkapenaren hurrenkera.

Baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, emakumeei emango zaie lehentasuna, administrazioko dena delako kidego edo eskalan emakumeak %40 baino gutxiago direnean. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak betetzen baditu; kasurako, laneratzeko arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide denean.

Aurrekoari kalterik egin gabe, izendapen-proposamena egitea eragozten duen berdinketa mantentzen bada, Epaimahaiak adostutako ordezkari proba bat eginez ezarriko da ordena. Proba egin baino 10 egun lehenago jakinaraziko zaie berdinketa kasuan dauden hautagaiei.

2. Hautaketa-prozesua amaitutakoan, epaimahaiak iragarki-oholean argitaratuko ditu gainditu duten hautagaien behin betiko kalifikazioak, guztira lortutako puntuazio handienetik txikienera ordenatuta eta gainditu duen hautagai bakoitzaren merituen eta ariketen kalifikazioak, eta hautatutako pertsonak nor diren berariaz adierazita. Onartuen kopurua ezin izango da deitutako lanpostuena baino handiagoa izan, deialdian bertan hori aurreikusi ezean.

3. Epaimahaiak, Giza Baliabide Arloaren bitartez, Alkatetza-udalburutzari bidaliko dio gainditutako pertsonen zerrenda, puntuazioaren hurrenkeran ordenatuta. Berariaz egingo du hautatutako pertsonak izendatzeko proposamena, eta proposamen hori lotesleia izango da.



4. Nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak eskuratu nahi dituztenek baina euskararen azterketa (nahitaezkoa eta baztertzaila) gainditu ez dutenek, hautaketa-prozesuan jarraitu ahal izango dute nahitaezkoa ez den hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan. Horrelakoetan, ariketa horretan eskuratutako kalifikazioa kontuan hartu eta oposizio-faseko ariketa guztietan eskuratutako puntuak errespetatuko dira.

5. Nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak eskuratu nahi dituztenak, hizkuntza-eskakizuna deialdian aurreikusi moduan egiaztatu badute baina lanpostu horretarako hautatu ezin badira, nahitaezko hizkuntza-eskakizuna ez duten lanpostuen hautaketa-prozesuetan hartuko dira kontuan, eta horrelakoetan oposizio-faseko ariketa guztietan eskuratutako puntuak errespetatuko zaizkie.

6. Nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak betetzeak izango du lehen-tasuna. Pertsonaren batek nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duen lanpostuan eta nahitaezkoa ez den hizkuntza-eskakizuna duen lanpostuan hautatzeko puntu nahikoa eskuratu badu, nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duen lanpostua betetzeak izango du lehen-tasuna.

7. Desgaitasunak dituzten pertsonentzako erreserbaren txandan parte hartu baina txanda horretan hautatu ezin direnak, minusbalotasunak dituzten pertsonentzat erreserbatu ez diren txandako hautaketa-prozesuan hartuko dira kontuan, automatikoki, eta horrelakoetan oposizio-faseko ariketa guztietan eskuratutako puntuak errespetatuko zaizkie.

Bederatzigarrena. — Agiriak aurkeztea

1. Zazpi asteguneko epean, prozesuaren emaitza udal iragarki elektronikoen taulan azaldu eta biharamunetik zenbatzen hasita, hautatutako pertsonak Barne Araudi eta Giza Baliabide arloko bulegoan honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- a) Nortasun Agiriaren eta Eranskinetan eskatutako tituluaren kopia erkatua.
- b) Zinpeko aitorpena edo promesa, zeregin publikoak betetzeko eskumenik gabe utzi ez dutela eta diziplina-espediente bidez herri-administrazioen zerbitzutik baztertuta ez dagoela adieraziz, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren 56.1.d) artikulua terminoetan, Administrazioak emango duen ereduaren arabera.
- c) 2.1.c) atalean eskatzen den baldintza egiaztatzen duen zinpeko aitorpena, Administrazioak emango duen ereduaren arabera.

2. Arestian adierazitako agiriak aurkezteko ezintasuna behar bezala justifikatzekoan, deialdian eskatutako betekizunak betetzen dituela egiaztatu ahal izango da, Zuzenbidean onartzen den edozein frogaren bidez.

3. Funtzionario publikoek ez dituzte agiri bidez justifikatu beharko euren aurreko izendapena lortzeko jada egiaztatu zituzten baldintzak eta dagoeneko espediente pertsonalean daudenak.

4. Adierazitako epe horretan, kasua ezinbestekoa izan ezean, inork agiriak aurkezten ez baditu edo agiriak aztertuta oinarri hauetan eskatzen diren betekizunen bat betetzen ez duela ikusten bada, ezin izango da kontratatu edo funtzionario izendatu, eta haren jarduketa guztiak deuseztatuko dira; hori gorabehera, erantzukizunen bat egon liteke hasierako eskabidean gezurren bat ipintzeagatik. Kasu horretan, hautaketa-prozesuko emaitzan izandako puntuazioaren hurrenkeraren arabera ordeztuko dira, aurretiaz bederatzigarren atalean aipatutako agiriak aurkeztuta.

Hamargarrena. — Izendatzea eta lanpostuaz jabetzea

1. Hautatutako pertsona, bederatzigarren ataleko aurreikuspenak betez gero, izendatu edo kontratatu egingo dute. Hautagai horrek bere karguaz jabetu beharko du, edota kontratua sinatu beharko du, gehienez hilabeteko epean, izendapena edo kontratazio-proposamena jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

2. Ezarritako epean eta justifikatutako arrazoirik gabe, plazaz jabetzen ez denak edo kontratua sinatzen ez duenak lanpostuari uko egin diola ulertuko da. Kasu horretan, hautaketa prozesuaren puntuazioaren hurrenkerara jarraituz ordezkatzeko da, bederatzigarren oinarrian ezarritakoa betez.



ERANSKINA

1. Bete behar diren lanpostuak**1.1. Izena**

Gizarte Langilea.

1.2. Deskribapena

Santurtziko Udaleko funtzionarioen plantillako Administrazio Bereziko eskalan, azpieskala Teknikoan, Erdi Mailako Teknikarien klaseko lanpostua.

1.3. Sailkapen-taldea edo -azpitaldea A2**1.4. Lanpostu-kopurua**

3. Hizkuntza-eskakizuneko lanpostu bat (1) derrigortasun-datarik ez dutenak.

1.5. Txanda

Sarrera librea.

1.6. Garatu beharreko funtzioak

- Lanpostuaren antolakuntza lana: Zuzendaritza lanetan eta goi-mailako funtzioetan aholkularitza eta laguntza ematea lanbideari dagozkion gaietan, araubide juridikoarekin bat etorriz eta arloari esleitutako eskumenen eta lehentasun politikoen esparruan.
- Jardunbide estrategikoak: herritarrei begirako zerbitzua, kalitatean eta etengabeko hobekuntzan arreta berezia jartzea eta parte hartzea.
- Izendatutako kideek honako funtzio hauek beteko dituzte, betiere betetzen ari diren lanpostu edo jasotzen dituzten aginduen arabera:
 - a) Esku hartzeko beharra atzematea.
 - b) Diagnosi sozialak egitea eta abian jarritako ekintzak ebaluatzea.
 - c) Banan-banakako edo familia mailako esku-hartze planak egitea, herritar edo familia bakoitzari egokitutakoak, euren egoera psiko-soziala hobetzeko.
 - d) Herritarra egokitu lekizkiokeen diru-laguntza, zerbitzu edo baliabide soziale-tara bideratzea, baldin eta beste Herri Administrazio batzuen eskumenekoak badira, bai eta beste zerbitzu espezializatueta ere, behar den guztietan.
 - e) Herritarrei lanpostuaren zereginarekin lotutako gai eta espedientei buruzko informazioa eta orientabidea ematea; bereziki egokitu lekizkiokeen baliabide sozialei buruzkoa.
 - f) Lanpostuaren zereginarekin lotutako gaiei buruzko txostenak eta proposamenak egitea eta horiek aditzera ematea, bereziki diru-laguntza, zerbitzuak eta baliabide sozialetarako eskaerekin lotuta daudenak.
 - g) Lanpostuaren zereginarekin lotutako araudi, ordenantza, estatutu eta beste araubide-tresna edo plan batzuetan aintzat hartu beharreko alderdi teknikoak jorratzea.
 - h) Lanpostuaren zereginarekin lotutako administrazio-kontratu, ekintza eta xedapenetan aintzat hartu beharreko alderdi teknikoak jorratzea.
 - i) Administrazioaren jokaeraren kontrol teknikoa egitea lanpostuaren zereginarekin lotutako gaietan, nola-eta erabiltzaileen egoeren eta izapidetutako espedienteen jarraipena eginez eta informazioa, jarduketak eta gomendioak eguneratuz egoki irizten den guztietan.
 - j) Lanpostuarekin lotutako gaiei buruzko erabakiak hartu behar diren kasuetan elkarlanean aritzea, eta aholkularitza eta laguntza ematea.
 - k) Beste arlo edota Udal Zerbitzu, Administrazio edo Herri-erakundeei aholkua eta laguntza ematea bere jardunari dagokion gaietan.



- l) Beste gizarte langileekin koordinatzea bere funtzioak gauzatzean, bai eta beste udal arlo eta erakunde publiko zein pribatu batzuekin ere.
- m) Hierarkian bere nagusia denak lanpostuaren zereginarekin lotuta agintzen dizkion antzeko beste funtzio batzuk egitea.

2. Berariazko betekizunak

Hautaketa-probetan onartua izateko eta parte hartzeko, hautagaiek Gizarte Laneko Gradua edo Diplomatura izan behar dute edo baliokideak, edo eskubideak ordainduz berauek lortzeko moduan egotea, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako.

3. Sartzeko sistema

3.2. Lehiaketa aldia

3.2.1. Oposizio aldia gainditu duten hautagaiek egiaztatzen dituzten merituak baloratzeko datza lehiaketa, hautagaien lehentasun-hurrenkera ezartzeko helburuz. Horretarako, ondoko merituak baino ez dira kontuan hartuko:

- a) Sektore Publikoan Gizarte Langilea zerbitzuak egitea, karrerako funtzionario, bi-tarteko funtzionario edo praktiketako funtzionario gisa edo lan-araubide finkoan edo aldi baterakoan: 0,04 puntu hilabete bakoitzeko edo hamabost eguneko edo gehiagoko zatiki bakoitzeko; gehienez 5 puntu. Puntuazio hori lanaldi osoetarako da, eta indize zuzentzaile proportzionala aplikatuko da lanaldi partzialetarako; ondore horretarako, ziurtagiri egokiak lanaldiari buruzko datuak eta portzentajea adierazi beharko ditu.

Herri-administrazioan emandako zerbitzuak eskumena duen organoak egindako agiriaren bidez egiaztatuko dira. Edonola ere, agiriak aurreko paragrafoan zehaztutako alderdiak adierazi beharko ditu, lanean emandako denborari, lanaldiari, lanpostuari eta plaza edo mailari buruzko datuak emanaz.

Ez dira adierazi diren zerbitzuekin batera emandako zerbitzuak zenbatuko, ez eta instantziak aurkezteko epearen amaieraren osteko aldietan emandako zerbitzuak ere.

- b) Prestakuntza-ikastaroak: lanpostuaren funtzioekin zerikusia duten prestakuntza eta hobekuntza-ikastaroak baloratuko dira, baldin eta funtzionarioen eskola ofizialetan, unibertsitate-erakundeetan edo, oro har, herri-erakundeetan lortu badira (Ganbara eta Elkargo Ofizialak eta herri-erabilerako elkarteak barne), edo aipatutako erakunde horiek homologatu edo diruz lagundu badituzte, eta ondoko baremoa aplikatuko zaie:

— 20 ordu edo gehiagoko eta 150 ordu edo gutxiagoko ikastaroak: gehienez 3 puntu, egiaztatutako ordu bakoitzeko 0,015 puntu.

— 150 ordu baino gehiagoko ikastaroak: gehienez 6 puntu, egiaztatutako ordu bakoitzeko 0,012 puntu.

Zentro horiek egindako ziurtagiri edo frogagiriaren bitartez egiaztatu beharko da prestakuntza, eta horietan nahitaez azaldu beharko da ikastaroen eskola-ordu kopurua.

Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan jasotako prestakuntza ez da zenbatuko.

Ez dira, inola ere, baloratuko:

- Funtzionario izateko hautaketa-prozesuetan derrigorrez egin beharreko ariketa gisa aurreikusitako prestakuntza-ikastaroak.
- Titulu akademikoa lortzeko ikasketa-planaren barruko ikastaroak.
- Baloratu diren beste ikastaro batzuen eduki bera duten ikastaroak.
- Deialdietan parte hartzeko ezinbesteko baldintza gisa eskatzen diren ikastaroak.
- Akademia pribatuetan jasotako ikastaroak.



- c) Urriaren 29ko 2007/1393 Errege Dekretuaren 10. Eta 11. artikuluan araututakoak Unibertsitate-masterreko edo Doktoretza titulu ofiziala izatea, lanpostuaren funtzioekin lotutakoa. Gehienezko puntuazioa 2 puntukoa izango da.
Horretarako, tituluak izan behar dira edo eskubideak ordainduz berauek lortzeko moduan egotea, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako.
- d) Euskara ezagutza: hurrengo lerrootan adierazten diren Hizkuntza Eskakizunak baloratuko dira (edo baliokideak edo goragokoak), adierazten den puntuazioa emanez:
- 1. Hizkuntza Eskakizuna: 5 puntu.
 - 2. Hizkuntza Eskakizuna: 10 puntu.
 - 3. Hizkuntza Eskakizuna: 20 puntu.
- Santurtziko Udalak ofizioz egiaztatuko du hautagaiak adierazitako euskara maila. Edonola ere, hizkuntza eskakizunen aurreko balorazioak ez dira metatuko, eta beraz, bakar-bakarrik baloratuko da egiaztatutako hizkuntza eskakizun altuenari dagokion puntuazioa.

3.2.2. Merituak aurkeztu, egiaztatu eta baloratzeko honako arau hauek hartuko dira kontuan:

- a) Hautagaiak oposizio-fasea gainditzen duten merituen egiaztagiria aurkeztuko dituzte Sarrera Erregistroan eta epaimahaiak adierazitako epean.
Internet bidez ere aurkeztu ahal izango dira Santurtziko Udalaren webgunearen (www.santurtzi.eus) izapideak/eskabide orokorra eskatu atalean.
- b) Epaimahaiak hautagaien merituen balorazioa egiteko eurek aurkeztu eta egiaztatzeko epearen azken eguna hartuko da erreferentzia gisa.
- c) Egiaztagiri gisa 3.2.1 atalean adierazitako agiriak baino ez dira aintzat hartuko, eta ez egiaztatutzat joko dira horrela aurkeztu ez diren merituen.
- d) Ezin izango dira baloratu aipatutako epearen barruan frogatu ez diren merituen, ez eta epearen barruan aurkeztuta ere, berau amaituta justifikatzen diren horiek ere.
- e) Agiriak Udal Batza honen esku baldin badaude, horrela adierazi beharko da beren-beregi, nola-eta aipatutako epean meritu-aitorpena edo curriculum vitae-a aurkeztuz. Bestela, merituen ez dira aintzat hartuko.
- f) Ez dira aintzat hartuko 3.2.1 atalean adierazitako baremoaren arabera, merituen baloratzeko beharrezkoak diren datuak agertzen ez dituzten agiriak.

3.3. Oposizio-fasea

Oposizioan honako ariketa hauek egin beharko dira:

- a) *Lehenengo ariketa, nahitaezkoa eta baztertzaila*: proba teorikoa idatziz burutu beharko da. Probak atal bat edo batzuk izan ditzake eta eranskin doan gaitegiko gaiekin izango du zerikusia. Horretarako, Epaimahaiak, ariketa hasteko unean jendaurrean ausaz aukeratuko diren bi gai planteatuko ditu, eta hautagaiak horietako bat aukeratu beharko du.
- Ariketa honetan honako hauek baloratuko dira: gaia ezagutu eta ulertzen den, ezaguera orokorrak, ideien argitasun eta sintesia, idazmenaren kalitatea eta aurkezteko edo adierazteko era. Ariketaren puntuazioa aipatutako irizpideen balorazioaren arabera zehaztuko da. Puntuazio hori botoa duten epaimahaiakide guztiek emandako puntuazioen batez bestekoa izango da.
- Aipatutako irizpideen balorazioen bidez, honako maila hauek ezarriko dira: bikaina, ona, nahikoa eta eskasa.
- Epaimahaiak maila bakoitza lortzeko zeintzuk baldintza aplikatuko dituen zehaztuko du eta, azterketa egin baino bi egun lehenago, aztergaiei horren berri emango die.



Ariketa honetan 35 puntu lortu ahal izango dira, gehienez. Hautagaiek 17,5 puntu lortu beharko dituzte, gutxienez, ariketa hau gainditzeko. Adierazitako puntuak lortu ezean, «ez gai» kalifikazioa lortuko da. Ariketa hori egiteko denbora epaimahaiak zehaztuko du, ariketaren ezaugarrien arabera.

- b) *Bigarren ariketa, nahitaezkoa eta baztertzaila*: proba praktikoa idatziz burutu beharko da. Probak atal bat edo batzuk izan ditzake eta lanpostuaren funtzioekin eta eranskin doan gaitetik gai espezifikoei izango du zerikusia. Epaimahaiak, ariketaren izaera eta edukia kontuan hartuta, zehaztu egingo du zein gailu edo material tekniko erabil ditzaketen izangaiek ariketa hau egiteko.

Ariketa honetan honako hauek baloratuko dira: gaia ezagutu eta ulertzen den, ezaguera orokorrak, ideien argitasun eta sintesia, idazmenaren kalitatea eta aurkezteko edo adierazteko era. Ariketaren puntuazioa aipatutako irizpideen balorazioaren arabera zehaztuko da. Puntuazio hori botoa duten epaimahakide guztiek emandako puntuazioen batez bestekoa izango da.

Aipatutako irizpideen balorazioen bidez, honako maila hauek ezarriko dira: bikaina, ona, nahikoa eta eskasa.

Epaimahaiak maila bakoitza lortzeko zeintzuk baldintza aplikatuko dituen zehaztuko du eta, azterketa egin baino bi egun lehenago, aztergaiei horren berri emango die.

Ariketa honetan 45 puntu lortu ahal izango dira, gehienez. Hautagaiek 22,5 puntu lortu beharko dituzte, gutxienez, ariketa hau gainditzeko. Adierazitako puntuak lortu ezean, «ez gai» kalifikazioa lortuko da. Ariketa hori egiteko denbora epaimahaiak zehaztuko du, ariketaren ezaugarrien arabera.

- c) *Hirugarren ariketa*: Deitutako lanpostuan behar bezala jarduteko beharrezkoak diren gaitasunak baloratuko dira, eta horretarako jarraian zehaztuko diren probak egingo dira:

Lan gaitasunen testa: deitutako lanpostuan behar bezala jarduteko eskatzen diren gaitasunei buruzko galdera sorta bati hautazko erantzunen bidez eman beharko zaio erantzun.

Deitutako lanpostuan behar bezala jarduteko eskatutako gaitasunak demostratu eta konprobatzeko proba, aipatu gaitasunetan oinarritutako banakako edo taldekako elkarrizketa baten bidez. Horrez gain, proba honetan, epaimahaiak egoki irizten badio, benetako egoera baten simulazioa sartu ahal izango da, deitutako lanpostuan behar bezala jarduteko eskatzen diren gaitasunekin lotutako jarrera zehatz eta behagarriak ebaluatzeko aukera emanez.

Ariketa honetan gehienez 20 puntu lortuko dira. Epaimahaiak zehaztuko du ariketa egiteko denbora, berorren ezaugarriei erreparatuta.

Bi eratako gaitasunak neurtu ahal izango dira: adimenarekin edo trebetasunekin lotutakoak eta jarrerarekin edo nortasunarekin lotutakoak. Ariketa horretan ebaluatuko diren funtsezko elementuak motibazioari, gizarte-gaitasunei, eraketa psikologikoaren alderdiei eta zereginera bideratutako jokabideei buruzkoak izango dira.

3.4. *Praktika-aldia*

Aurreko ariketetan kalifikazio onena eskuratu duten pertsonak (gehienez deialdiko plaza kopurua) praktika-aldia gainditu beharko dute, eta horren iraupena ezin izango da 12 hilabete baino gehiagokoa izan.

Ikastaroa eta praktika-aldia egiten duenak, deialdi honi aplikatu behar zaizkien oinarri orokorretako 9. ataleko agiriak aurkeztu ondoren, praktiketako funtzionario izendatuko dira.

Fase honetan «gai» kalifikazioa eskuratuko da praktika-aldiaren edozein unetan, edo «ez gai» kalifikazioa praktika-aldiaren amaieran.



Udalak izendatuko duen praktika-aldiaren arduradunak egingo du kalifikazioa, eta hautagai bakoitzaren gaitasun eta baldintzei buruzko txosten arrazoitua egingo du, praktika-aldia gaingitu duten hautagaien aldeko izendapen-proposamenarekin batera.

Txostenean, gutxienez, alderdi hauen balorazioa egingo da: azterketak egiteko gaitasuna, erabakiak hartzeko gaitasuna, antolaketa zentzua, erantzukizun zentzua, eta taldean lan egiteko gogoia eta moldagarritasuna, eta lanaren jakintza maila.

Fase hau gaingitzen ez bada, automatikoki geratuko da hautaketa-prozesutik kanpo, eta hautagaiak karrerako funtzionario izendatzeko izan litzakeen eskubide guztiak galduko dira.

3.5. *Lan-poltsa*

Prozesuaren emaitzak etorkizunean aldi baterako kontratazioak egiteko erabiliko dira.

**GAI-ZERREDA
ATAL OROKORRA**

1. Espainiako 1978ko Konstituzioa: atariko tituluaren esanahia eta edukia. Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak
2. Estatuaren lurralde-antolaketa. Autinoa Estatutuak: beren esanahia.
3. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua: Atariko titulua, eskumenen sistema, erakunde-antolaketa eta lurralde-antolaketa.
4. Espainiako Toki Araubidea. Konstituzioaren printzipioak eta araubide juridikoa. Toki-erakunde motak.
5. Udalerria: kontzeptua eta elementuak. Udal-erakunde motak Espainiako Zuzenbidean.
6. Herri-administrazioa: motak, printzipioak eta ahalmenak. Administrazio-egintza: esanahia, motak eta betekizunak.
7. Administrazio-prozedura: esanahia, printzipioak eta faseak. Administrazioaren isiltasuna.
8. Administrazio-egintza baliogabetzea. Administrazio-egintzak berrikustea.
9. Administrazioa: kontzeptua eta motak. Interesduna eta beronen ordezkartza.
10. Administrazio-egintzaren eraginkortasuna eta nahitaez betearaztea.
11. Euskadiko toki korporazioen zerbitzuko langileak: motak, sarrera, karrera profesionala eta ordainsari-sistema.
12. 2005/4 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa (2005eko matxoaren 2ko EHAA).
13. Toki-erakundearen ordenantzak eta erregelamenduak.
14. Datuen babesari: pertsona fisikoaren babesari eta datu hauen zirkulazio libreak buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena. Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

BERARIAZKO ATALA

15. Abenduaren 5eko 12/2008 Legea, gizarte zerbitzuei buruzkoa: I. Titulua: Xedapen orokorrak.
16. Abenduaren 5eko 12/2008 Legea, gizarte zerbitzuei buruzkoa: II. Titulua, I. kapituluak: Prestazioak eta plangintza euskal gizarte zerbitzuen sisteman.
17. Abenduaren 5eko 12/2008 Legea, gizarte zerbitzuei buruzkoa: II. Titulua, II. KAP: Euskal gizarte zerbitzuen sistemaren antolakuntza, eta II. Titulua, III. KAP: Planifikazioa euskal gizarte zerbitzuen sisteman.
18. Abenduaren 5eko 12/2008 Legea, gizarte zerbitzuei buruzkoa: III. Titulua: Eskumenen, antolaketaren, kontsulten eta partaidetzaren araubidea euskal gizarte zerbitzuen sisteman.
19. Abenduaren 5eko 12/2008 Legea, gizarte zerbitzuei buruzkoa: V. Titulua: Eki-
men pribatuaren esku-hartzea.
20. Abenduaren 5eko 12/2008 Legea, gizarte zerbitzuei buruzkoa: VI. Titulua: Euskal gizarte zerbitzuen sistemaren garapena eta hobekuntza.
21. Abenduaren 5eko 12/2008 Legea, gizarte zerbitzuei buruzkoa: VII. Titulua: Ikuskaritza, arau-hausteen araudia eta zehapenak.
22. 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituen. I. kapituluak: Xedapen Orokorrak. II. kapituluak: Gizarte Zerbitzuen Erabiltzaileen Eskubide eta Betebeharrak.



23. 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituen. III. kapitulua: Gizarte Zerbitzuen Profesionalen Eskubide eta Betebeharrak.
24. 10/2000 Legea, abenduaren 27koa, Eskubide Sozialen Gutunarena.
25. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa: 1- 30 artikulua.
26. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa: 31-34 artikulua, I. Eranskina, A).
27. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa: I. eranskina, B), C) eta D).
28. 4/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa, Gizarte Larrialdietako Laguntzak arautzen dituena (1-24 artikulua), eta 16/2017 Dekretua, urtarrilaren 17koa, Gizarte Larrialdiko Laguntzen Dekretua aldatzen duena (1-7 artikulua).
29. 353/2013 Dekretua, maiatzaren 28koa, euskal gizarte zerbitzuen sistemaren fitxa sozialarena eta euskal gizarte zerbitzuen sistemaren diagnostiko sozialaren tresnarena.
30. 385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterketa Balioesteko Tresna onesten duena.
31. Umeei eta nerabeei arreta eta babesa emateko estatuko esparru juridikoa: 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, Umeen eta Nerabeen Babes Sistema aldatzekoa.
32. Umeei eta nerabeei arreta eta babesa emateko EAEko esparru juridikoa: 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Umeei eta Nerabeei Arreta eta Babesa emateari buruzkoa (1-25 artikulua).
33. Umeei eta nerabeei arreta eta babesa emateko EAEko esparru juridikoa: 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Umeei eta Nerabeei Arreta eta Babesa emateari buruzkoa (26-44 artikulua).
34. Umeei eta nerabeei arreta eta babesa emateko EAEko esparru juridikoa: 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Umeei eta Nerabeei Arreta eta Babesa emateari buruzkoa (45-63 artikulua).
35. Umeei eta nerabeei arreta eta babesa emateko EAEko esparru juridikoa: 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Umeei eta Nerabeei Arreta eta Babesa emateari buruzkoa (64-81 artikulua).
36. Arrisku- eta babesgabezia-egoerak: definizioa eta larritasun mailak, larritasunaren balorazioa eta prozedura, maiatzaren 9ko 152/2017 Dekretuaren arabera, zeinak «Balora» (Euskal Autonomia Erkidegoko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailetako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta babesgabezia-egoeren larritasuna balioesteko tresna eguneratu zuen.
37. 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatu eta horientzako laguntza arautzen duena. 1-12 artikulua, biak barne.
38. 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatu eta horientzako laguntza arautzen duena. 13-25 bis artikulua, biak barne.
39. Bizkaiko Foru Aldundiaren 153/2016 Foru Dekretua, urriaren 11koa, mendekotasun-egoera balioztatu eta orientatzeko prozedura arautzen duena.
40. Bizkaiko Foru Aldundiaren 59/2019 Foru Dekretua, gizarte-inklusioren arloan esku hartzeko prozedura espezializatua arautzen duena (1-16 artikulua).
41. Bizkaiko Foru Aldundiaren 59/2019 Foru Dekretua, gizarte-inklusioren arloan esku hartzeko prozedura espezializatua arautzen duena (17-31 artikulua).
42. Bizkaiko Foru Aldundiaren 59/2019 Foru Dekretua, gizarte-inklusioren arloan esku hartzeko prozedura espezializatua arautzen duena (32-45 artikulua).



43. Bizkaiko Foru Aldundiaren 59/2019 Foru Dekretua, gizarte-inklusioren arloan esku hartzeko prozedura espezializatua arautzen duena (46-58 artikulua).
44. Bizkaiko Foru Aldundiaren 60/2011 Dekretua, martxoaren 22koa, Gizarte-inklusioko laguntza berezia arautzen duena. Bizkaiko Foru Aldundiaren 79/2018 Foru Dekretua, ekainaren 19koa, zeinak aldatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 60/2011 Dekretua, martxoaren 22koa, Gizarte inklusioko laguntza berezia arautzen duena.
45. Gizarte lana: kontzeptua, oinarriak, helburuak, eginkizunak eta printzipioak
46. Gizarte laneko teknikak: Gizarte Laneko elkarrizketa: kontzeptua, sailkapenak, elkarrizketa egiteko prozesuaren egitura. Bisita etxean.
47. Gizarte laneko dokumentazioa: Fitxa soziala, txosten soziala, historia soziala, genograma, elkarrizketen erregistroa. Definizioa eta funtzioa.
48. Diagnostiko soziala eta arreta pertsonalizatuko plana.
49. Gizarte zerbitzuetako diziplina askotako ekipoak eta erakundeen arteko koordinazioa.
50. Etika esku-hartze sozialean. Printzipioak eta balioak. Intimitatea, konfidentzialtasuna eta sekretu profesionala. Gatazka etikoak eta etika-batzordeak esku-hartze sozialean. Gizarte laneko deontologia-kodea (2012).
51. Arreta soziosanitarioa. Arreta soziosanitarioaren ildo estrategikoak Euskadira - 2017-2020.
52. Buruko gaixotasunen alderdi psikosozialak.
53. Gizarte-bazterketa: kontzeptua, ezaugarriak eta faktoreak. Ekarpene profesiona-la gizarte lanetik.
54. Testuinguru kontzeptuala eta arauzkoa, diagnostikoa, printzipioak eta jarduketa eremuak gizarteratzeko (Gizarteratzeko IV. Euskal Plana 2017-2021, 2, 4 eta 5. kapitulua).
55. Eguneko arreta-zerbitzua. Santurtziko udalerriko mendekotasun egoeran edo arriskuan dauden adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua arautzen duen udal ordenantza. (2019ko ekainaren 21eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua, 118 zenbakia).
56. Etxez etxeko laguntza zerbitzua. Santurtziko udalerriko etxez etxeko zerbitzua- ren udal araudia. (2006ko ekainaren 2ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua, 105 zenbakia).
57. Gizarte jantoki zerbitzua. Santurtziko Udalerriko gizarte jantoki zerbitzua arau- tzen duen Ordenantza. (2018ko urriaren 29ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua, 208 zenbakia).
58. Etxerik gabekoak: kontzeptua, kausak, eta etxerik gabeko pertsonen arreta emateko euskal estrategia baterako proposamena (Etxebizitza-bazterketan diren egoera larriak prebenitu eta murrizteko euskal estrategia 2018-2021, 2., 3. eta 6. kapitulua).
59. 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duena
60. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurkako ba- bes integraleko neurriei buruzkoa: 18-28 eta 61-69 artikulua.